

2010, disko kromatikoa

Ttakun-ttakun, mimetismoaz ari gara aspaldion. Hots: inguruan dutenen kolorea eta itxura hartzeko, batzuek daukaten ahalmenaz, gogoaz edo beharraz.

Mimetismo natural eta sozialen estatutua marraztean, txakurren eta jabeen arteko antzekotasunaz mintzo zinen, Ur.

Badut ezagun bat, tigre-larruazaleko *boxer* txakur ederra gobernatzen duena. Ugazabak zer jan, animaliak hartatik franko. Xerra bada, mami guria; apatz beltzeko pernila bada, ondutako gutizia horri gizona erauzitako mokadu ederra, zeren triglizeridoak oso altu baitauzkate. Biek.

Absurduak izatera heltzen dira mimetismoeta-ko batzuk...

Begira, unibertsitarioentzako egoitza ezagun baten aurrean, belauna konpontzen ahalegindu zaizkit egunotan Bilboko klinika batean. Meniskokontu batzuk, ez oso larriak —besteentzat, jakina—.

Mimetismo batzuen absurdua, modu paradigmatikoan, unibertsitarioentzako egoitza horrek berak erakutsi dit. Izan ere, horren atari nagusian, zilar distiratsuzko letratan idatzita, honako testu hau duen plaka eskegi dute: *Colegio mayor B... Ikastetxe nagusia*. Ez naiz filologoa, baina nago *colegio* batzuk ez direla *ikastetxe*.

* * *

2010, iragarria egon arren, bat-batean etorri da Juan Jose Ibarretxeren aldarrikapena, Gasteizko Legebiltzarrean. Baina, gu, mimetismoaz ari ginen. Halaxe ari gara.

Absurduak izateaz gain, mimetismoetan, debekatua ere badira baten batzuk. Jazarriak dira horiek. Onez nahiz txarrez, pertsegituak. Bukatzen ez, baizik, hasi egiten dira arazoak, holako mimetismo debekatuekin.

Suitza dut gogoan. Kanpaina higuinarrria abiatu du SVP-UDC Alderdi Popularra delakoak. Atzeritarren aurka, etorkinen aurka, azal iluneko lagunaren aurka, erlijio kristaua besarkatu ez dutenen aurka... Artaldeko ardi beltz izendatu dituzte horiek guztiak. Eta,



J. I. Basterretxea

Errro

Apalategi

kanpainako afixa nagusian, ardi zuriek botatzen dituzte beltzak ostikoka, Suitzako belardi zerutiar guztiz mantxarik gabekoe-tatik at.

Ez da zeinuen zientzietan oso jaioa behar, zantzu arrazista, baztertzaila eta jazarlea aurkitzeko Ueli Maurer jaunaren jarraitzaile diren helvetiar zerrilarru gorri populista horien papo gurietan.

Frantzia sakonago jo dute, beraiena baino herrialde ekonomikoki aberatsagoa den batera lan egiteko joan den etorkinaren jazarpenean. Azalaren kolorearekin nahikoa ez, eta DNA probak egingo dizkiete atzerritar batzuei. Susmagarriei.

Begi-bistan nahi ditu Europak ardiak, denak. Larrekoak nahiz sasikoak, zuriak ala beltzak. Disidenteak, bereziak, mairuak, komunistak, elbarriak... margo beraren menpean, kontrolpean nahi ditu Europak denak, eta inolaz ez mimetismoaz baliaturik han eta hemen hala-hola babesturik. Mimetismo batzuk, hartara, sakonki debekatuak dira.

* * *

Noski, derrigortuak izaten ere badakite mimetismoetako batzuek. Arazoaz gain, problema... Apartekotasunen deuseztatzaila mutiriak izaten dira mimetismo horiek. Inposatuak dira. Bortxaz ezarriak. Beregaintasunen xurgatzaile, goitik behe-rako legedi monokromatikoen emaitza dira mimetismo derrigortuak.

Mimetismo absurduz, debekatuez eta inposatuez ari gara. Lehendakaria erreferendumaz. Saiak, ordenaz eta araez. Historiaz eta eskubi-deez, orbangabeak.

Bat-batean, 2010 data jarri digu begien aurrean Euskadiko Lehendakariak. Oilategia harrotu zaio, azeria etxean bezala. Asmatuko ote dute Madrilek, Parisek, Gasteizek, Iruñeak-eta paleta kromatikoa osatzen?

Telegrama bidali dit martiztar herrenak.

“K.K.K.” idatzi du. Angel, zer esan nahi ote zidan? Konstituzioa. Konstituzioa. Konstituzioa? Ku Klux Klan? ■

Telegrama bidali dit martiztar herrenak:

‘K.K.K.’ idatzi du. Angel,

zer esan nahi ote zidan?

Konstituzioa. Konstituzioa. Konstituzioa?

Ku Klux Klan?